

# Landareak

JAKOBA ERREKONDO

## Simaur minetan

LORETIK LORERA polena garraiatzeko saguzarren bat erabiltzen duen landaretik bada. Trukean, hegaldia gozatzeko, nektarra. Nektar hori ez da, nonbait, huserria. Bere ordainetan, landare batzuk aparteko lanak egiteko prest dauden animalia-lagunak topatzeko ez dute, itxuraz, lan handirik.

*Nepentes* generoko landareek intsektuak baliatzen dituzte. Landareok lur elkorretan bizi dira, elikatzeko nahikoa lan badute eta jaki gabezia hori arintzeko haragijale egin dira. Intsektuak harra-patzeko arteak asmatu dituzte. Genero horretako aldaera gehienek lore handi tenteak dituzte, pitxar tankerakoak. Lorearen beheko barrenean nektar putzua. Gozokiaren tranpan intsektua erori eta ito ondoren landareak hustu egingo du, batik bat nitrogenoa xurgatu. Genero horretako beste landare batzuek sataginak edo satixuak baliatzen dituzte. Nektarra hurrupatzeko mutturra luxe-luxe egin behar du karraskariak, ipurdia lorearen ahoan ipiniz. Beste animalia gehienoi bezala sataginari ere bere sailak mugarriztea gustatzen zaio, baita nektarra ematen dion lorea ere. Mugarria kaka pila bat izaki, lorean ere halaxe egiten du. Eta lorea gustura, nitrogenoa eta gainontzeko ongarriak etxerako.

*Nepentes baramensis*-ek, aldiz, arriskurik gabe jokatzen nahi du eta intsektuak jateko gai den lorea saguzar



*Nepentes* generoko landare haragijalea.

baten habia bihurtzen du, harekin luzerako tratua lotuz. Tratua eginda, loreak nektar gutxi eman behar eta usain erakargarriak ekoizten energiari gastatu beharrik ez. *Kerivoula hardwickii hardwickii* da saguzarra. Hark ongi babestutako lo-tokia eskertu egingo du eta sataginak bezala bere kaka eta pixak bertan utziko ditu. Komunadun logela. Landareak obramenduak berrerabili eta ongarri hartuko ditu. Besteak beste, behar duen nitrogenoaren heren bat baino gehiago horrela erdiesten du. Mutualismoa deritzo kidetasun horri, biak nolabaiteko onura eskuratzen duten sinbiosi era bat. Kaka minetan, biak. Borneon gertatzen da istorio hori.



## 5.500 urtetik gora

Atzo arte soja landarea (*Glycine max*) Txinan etxekotu eta duela 3.000-4.000 urte inguru soroe-tan landatzen hasi zirela uste zen. Japonian, Hego Korean eta Txinan bertan jasotako arrasto arkeologikoetan oinarrituta garai bertsu batean hiru estatu horietako toki askotan soja lantzeari ekin zitela zabaldu dute. Era berean garai hori uste baino lehenago izan omen zen, duela 5.500 urte inguru. Milaka urte behar izan ditu, baina iritsi da: gero eta sukalde gehiagotan ikusten dut soja.



Soropila ezartzea, zaintzea eta mantentzea  
Inausketa lanak: landareak hazteko, mantentzeko eta berritzeko  
Barrualdeak lorategi bihurtzea

Luberri Basolanak, S.L. • Axpe ibaiertzea 28, beheko solairua 1-2  
Erandio (Bizkaia) • Mugikorra: 629 41 18 38 • Tel.: 944 671 713 • Faxa: 944 674 241  
luberri@luberri.biz • www.luberri.biz